

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

5739

EBAZPENA, 2018ko azaroaren 2koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearena, zeinaren bidez agintzen baita oinarri espezifiko batzuk argitaratzeko, talde honetan lan kontratudun langile finkoak hautatzeko prozedura arautuko baitute: UPV/EHUko I. sailkapen taldea, goi mailako teknikariak.

UPV/EHUren Gobernu Kontseiluaren 2016ko apirilaren 7ko Erabakiaren arabera, 2016. urteari dagokion lan-eskaintza publiko berria argitaratu zen lan kontratudun administrazio eta zerbitzuetako langileentzat (2016ko abuztuaren 10eko EHAA, 150. zk.).

Bestalde, UPV/EHUren Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 14ko Erabakiaren arabera, administrazio eta zerbitzuetako lan kontratudun langileen 2017. urteko lan-eskaintza publikoa onartu zen (2017ko abenduaren 26ko EHAA, 244. zk.).

Kudeaketaren ekonomia, eraginkortasun eta efizientziaren alde, 2016ko eta 2017ko lan-eskaintza publikoak prozesu bakarrean egingo dira, halaxe adostu baitzen AZPko lan kontratudunen eta funtzionarioen negoziazio mahaien 2016ko ekainaren 30eko baterako Akordioan, zeinaren bidez gutxieneko irizpideak zehaztu baitziren arautzeko sarrera prozesuetako hautapen-proben deialdiak, AZPko funtzionarioaren eta lan kontratudunen negoziazio mahaiak 2016ko ekainaren 9an hartutako akordioan aurreikusitakoak, eta prozesu bakar horren oinarri orokorrak Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak 2018ko irailaren 27an hartutako erabakiaren bidez argitaratu ziren.

Kontuan izanda, batetik, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak langileak hautatzeari buruz dioena 23. eta 24. artikuluetan eta II. tituluaren eta IV. kapituluaren, eta, bestetik, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak dioena IV. tituluaren I. kapituluaren, eta aldez aurretik deialdi hau Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak onartuta 2018ko irailaren 27ko saioan, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuek 59., 60. eta 61. artikuluetan zehaztutakoaren babesean, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Deia egitea Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko I. sailkapen talderako, Goi Mailako Teknikarien talderako, lan kontratudun langile finkoak hautatzeko probetarako. Hautaketa-sistema lehiaketa-oposizioa izango da plaza hauetarako:

A) Hogeita bi (22) plaza honako kategoria honetan: IKTko goi mailako teknikariak; era honetara banatuta:

1.– Hamazortzi (18) plaza Sistemen Informatika espezialitatean, era honetara banatuta:

1.1.– Bat (1) plaza desgaitasuna duten pertsonen txandarako, 3. HE eta derrigortasun-data gaindituta.

1.2.– Hamazazpi (17) plaza txanda librean, era honetara banatuta:

1.2.1.– Zortzi (8) plaza: 3. HE eta derrigortasun-data gaindituta.

1.2.2.– Bederatzi (9) plaza: 3. HE eta derrigortasun-datarik gabe.

2.– Lau (4) plaza Aplikazioen Informatika espezialitatean, txanda librean, era honetara banatuta:

2.1.– Bi (2) plaza: 3. HE eta derrigortasun-data gaindituta.

2.2.– Bi (2) plaza: 3. HE eta derrigortasun-datarik gabe.

B) Bat (1) plaza Eraikuntza, Obra Zibil eta Mantentze Lanetako goi mailako teknikarien kategorian, Arkitektura eta Obrak espezialitatean, txanda librean, 3. HE eta derrigortasun-datarik gabe.

C) Bat (1) plaza Argitalpen eta Arte Grafikoetako goi mailako teknikarien kategorian, Argitalpenak eta Arte Grafikoak espezialitatean, txanda librean, 3. HE eta derrigortasun-datarik gabe.

D) Bat (1) plaza Itzulpengintza eta Interpretazioko goi mailako teknikarien kategorian, Itzulpengintza/Interpretazio espezialitatean, txanda librean, 4. HE eta derrigortasun-data gaindituta.

E) Hiru (3) plaza Gestioko goi mailako teknikarien kategorian, Gestio espezialitatean, era honetara banatuta:

1.– Bat (1) plaza: 3. HE eta derrigortasun-data gaindituta.

2.– Bi (2) plaza: 3. HE eta derrigortasun-datarik gabe.

Bigarrena.–Agindua ematea argitaratzeko oinarri espezifikoak eta gai zerrendak (I-VII eranskinak), Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko I. sailkapen talderako, Goi Mailako Teknikarien talderako, lan kontratudun langile finakoak hautatzeko probak arautuko dituztenak.

– I. eranskina: oinarri espezifikoak Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko I. sailkapen talderako, Goi Mailako Teknikarien talderako.

– II. eranskina: gai zerrenda. Kategoria: IKTko maila ertaineko teknikariak; espezialitatea: Sistemen Informatika.

– III. eranskina: gai zerrenda. Kategoria: IKTko goi mailako teknikariak; espezialitatea: Aplikazioen Informatika.

– IV. eranskina: gai zerrenda. Kategoria: Eraikuntza, Obra Zibil eta Mantentze Lanetako maila ertaineko teknikaria; espezialitatea: Arkitektura eta Obrak.

– V. eranskina: gai zerrenda. Kategoria: Argitalpen eta Arte Grafikoetako goi mailako teknikaria; espezialitatea: Argitalpenak eta Arte Grafikoak.

– VI. eranskina: gai zerrenda. Kategoria: Itzulpengintza eta Interpretazioko goi mailako teknika-ria; espezialitatea: Itzulpengintza/Interpretazioa.

– VII. eranskina: gai zerrenda. Kategoria: Gestioko goi mailako teknikaria; espezialitatea: Gestioa.

Hirugarrena.– Erabaki honen kontra, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke zuzenean Administrazio Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Bi aukerak bateraezinak dira.

Leioa, 2018ko azaroaren 2a.

UPV/EHUko errektorea,
NEKANE BALLUERKA LASA.

I. ERANSKINA

OINARRI ESPEZIFIKOAK

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko I. sailkapen taldea: Goi Mailako Teknikarien taldea.

1.– Deitutako plazak:

A) Hogeita bi (22) plaza honako kategorian: IKTko goi mailako teknikariak; era honetara banatuta:

1.– Hamazortzi (18) plaza Sistemen Informatika espezialitatean, era honetara banatuta:

1.1.– Bat (1) plaza desgaitasuna duten pertsonen txandarako, 3. HE eta derrigortasun-data gaindituta.

1.2.– Hamazazpi (17) plaza txanda librean, era honetara banatuta:

1.2.1.– Zortzi (8) plaza: 3. HE eta derrigortasun-data gaindituta.

1.2.2.– Bederatzi (9) plaza: 3. HE eta derrigortasun-datarik gabe.

2.– Lau (4) plaza Aplikazioen Informatika espezialitatean, txanda librean, era honetara banatuta:

2.1.– Bi (2) plaza: 3. HE eta derrigortasun-data gaindituta.

2.2.– Bi (2) plaza: 3. HE eta derrigortasun-datarik gabe.

B) Bat (1) plaza Eraikuntza, Obra Zibil eta Mantentze Lanetako goi mailako teknikarien kategorian, Arkitektura eta Obrak espezialitatean, txanda librean, 3. HE eta derrigortasun-datarik gabe.

C) Bat (1) plaza Argitalpen eta Arte Grafikoetako goi mailako teknikarien kategorian, Argitalpenak eta Arte Grafikoak espezialitatean, txanda librean, 3. HE eta derrigortasun-datarik gabe.

D) Bat (1) plaza Itzulpengintza eta Interpretazioko goi mailako teknikarien kategorian, Itzulpengintza/Interpretazio espezialitatean, txanda librean, 4. HE eta derrigortasun-data gaindituta.

E) Hiru (3) plaza Gestio goi mailako teknikarien kategorian, Gestio espezialitatean, era honetara banatuta:

1.– Bat (1) plaza: 3. HE eta derrigortasun-data gaindituta.

2.– Bi (2) plaza: 3. HE eta derrigortasun-datarik gabe.

Deialdi honek erantsita dauka generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa, Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan zehaztutakoa.

2.– Deialdian parte hartzeko baldintzak. Oinarri orokorretako 4.2 eta 4.3 ataletan zehaztutako baldintzez gain, ondorengo baldintzak bete behar dira Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak 43. artikuluan zehaztutakoaren babesean:

a) Eskatutako titulazioa izatea: Doktorea, lizentziatua, ingeniaria, arkitektoa edo parekoa, organo ofizial eskudunak emandakoa.

b) edozelan ere, kasuan kasuko lanpostuak dituen baldintzak bete behar dira, bai eta indarreko araudiak zehazten duen beste edozein ere.

Hain zuzen ere, Eraikuntza, Obra Zibil eta Mantentze Laneko goi mailako teknikarien kasuan (espezialitatea: Arkitektura eta Obrak) Arkitekto titulua izan behar da.

3.– Oposizio fasea.

Proba teoriko-praktikoa egin behar da. Ariketa bakarra izango da, bi zatitan banatuta: zati bat teorikoa; bestea praktikoa. Zati bakoitza nahitaezkoa da, baina ez baztertzaila.

Oposizio fasean, guztira, 20 puntu lortu ahal izango dira: zati teorikoan eta teoriko-praktikoan lortutako puntuen batura izango da, eta horietako bakoitzean gehienez ere 10 puntu lortu ahal izango dira.

Oposizio fasea gainditzeko, gutxienez 10 puntu lortu beharko dira bi zatietan lortutako puntuak gehituz.

Erantzun okerrek eta erantzun gabeko galderak ez dute penalizaziorik izango.

3.1.– Lehenengo ariketa:

3.1.1.– Proba teorikoa izango da; gehienez ere 10 puntu.

Test motakoa izango da: 100 galdera (gehi erreserbarako 20), bakoitzak lau erantzun aukeran eta horietako bakar bat zuzena. Galderak 1000 galderaz osatutako galdera sortatik aterako dira, eta galderak osatzeko oinarri izan dira eranskinetan jasotako gai zerrendak.

Gutxien dela hiru (3) hilabete igaro beharko dira galdera sortak argitaratzen direnetik ariketa hau egin arte.

Proba teoriko hau egiteko denbora: 150 minutu.

Zuzenean gehienez lor daitezkeen puntuak: 100 puntu. Ariketa honetako puntuazioa zehazteko, zuzenean lortutako puntu kopurua zati hamar (10) egingo da, eta zatidura hori izango da ariketa honen azken puntuazioa.

3.1.2.– Proba teoriko-praktikoa izango da; gehienez ere 10 puntu.

Zati praktikoa ebaluatuko da lehiakideen gaitasun edo egokitasuna eskatutako plazarri dagozkion eginkizunak betetzeko.

Proba teoriko-praktikoa hau egiteko denbora, edozein dela ere aukeratutako ariketa: 150 minutu.

Zati honetan parte hartzaileak ariketa bat egin beharko du, hauen artetik hautatua:

a) Test motakoa: 100 galdera (gehi erreserbarako 20), bakoitzak lau erantzun aukeran eta horietako bakar bat zuzena; galderak 3.1.1. atalean aipatutako galdera sorta beretik lortuak.

Zuzenean gehienez lor daitezkeen puntuak: 100 puntu. Ariketa honetako puntuazioa zehazteko, zuzenean lortutako puntu kopurua zati hamar (10) egingo da, eta zatidura hori izango da ariketa honen azken puntuazioa.

b) Epaimahaiak gutxienez proposatuko dituen 5 kasu praktikoetako bat ebaztea, dokumentazio eta material espezifiko erabilia.

Bigarren proba honetako b atal hau ebaluatzeko, kontuan hartuko da: batez ere, proposatutako gaiarekin erakutsitako lotura maila; analisirako eta laburtzeko gaitasuna; garatutako ideian abertasuna; argitasuna eta zuzentasuna.

Fase hau gainditu ahal izango duen hautagai kopurua deitutako plaza kopurua baino handiagoa izan daiteke.

4.– Lehiaketa fasea.

Lehiaketaren fasean oposizio fasea gainditu duten hautagaiak alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, merezimendu bakoitzari puntuazioa esleituz, deialdi bakoitzaren baremo espezifikoaren arabera. Fase honetan gehienez ere bederatz (9) puntu lortu ahal izango dira.

Lehiaketa fasea ez da baztertzaileria izango, eta ez da kontuan hartuko oposizio faseko probak gainditzeko.

Merezimenduen baremazioa:

4.1.– Administrazio Publikoetan eskainitako zerbitzuak eskariak aurkezteko epea amaitu arte.

Atal honetan, bederatz (9) puntu lortuko dira gehienez, irizpide hauen arabera:

a) Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko 3/2004 Legearen laugarren xedapen iragankorraren arabera, UPV/EHU eskainitako zerbitzuengatik, deialdiari dagozkion kategorian eta espezialitatean: 0,06 puntu lan eginiko hilabete oso bakoitzeko, 9 puntu arte.

b) Beste unibertsitate publiko batzuetan eskainitako zerbitzuengatik, deialdiari dagozkion kategorian eta espezialitatean: 0,06 puntu lan eginiko hilabete oso bakoitzeko, 6 puntu arte.

c) Beste administrazio publiko batzuetan eskainitako zerbitzuengatik, deialdiari dagozkion kategorian eta espezialitatean: 0,06 puntu lan eginiko hilabete oso bakoitzeko, 4,5 puntu arte.

Puntuak zehazteko, guztira lan egindako aldiak hartuko dira kontuan, eta, behin hori eginda, baztertu egingo dira hilabetetik beherako zatiak. Ondorio horietarako, hilabeteak 30 egun natural izango ditu.

Eskainitako zerbitzuak behin baino ez dira baloratuko, hau da: nahiz eta hautaketa prozesu batean baino gehiagoan parte hartu, bakar baterako baino ezin izango dira erabili. Horrela, bada, hautagaiak zehaztu egin beharko du (merezimenduak alegatu eta egiaztatzeke epearen barruan) zein hautaketa prozesutarako aurkezten dituen merezimenduak.

4.2.– Titulazio akademikoak.

Titulu akademikoei 1 puntu emango zaie gehienez, eskatutako plazari dagokion sailkapen taldean sartzeko alegatutako tituluar ez besteei. Modu honetara banatuko da:

– A titulu taldean eskatutako beste tituluren bat edukitzea: 0,50 puntu titulazioko.

Goi mailako tituluak baloratzen diren kasuetan, ez dira baloratuko titulu horiek lortzeko beharrezkoak diren maila beheragoko tituluak.

4.3.– Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak ez diren hizkuntzak.

Gehienez ere 1,50 puntu, irizpide hauen arabera:

– Europako Marko Bateratuko C1 edo maila goragoko frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio-ziurtagiriak: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– Europako Marko Bateratuko B2 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio-ziurtagiriak: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– Europako Marko Bateratuko B1 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio-ziurtagiriak: 0,25 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Ondorio horietarako, kontuan hartuko da Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak 2012ko martxoaren 8an hartu zuen erabakia, hizkuntza ez-ofizialen baliokidetasunari buruzkoa, edo erabaki horren ordean indarrean dagoen arautegia.

Balorazioa ez da metagarria izango; hau da, hizkuntza batean maila bat baloratzen bada, ez dira baloratuko hortik beherako mailak.

5.– Merezimenduen balorazioa.

5.1.– UPV/EHUn eskainitako zerbitzuak alegatu egin beharko dira, baina ez dira egiaztatu beharko. Administrazioak ofizioz kalkulatuko ditu.

5.2.– Beste administrazio publiko batzuetan eskainitako zerbitzuak egiaztatzeko, administrazio bakoitzak horretarako daukan ziurtagiri eredia aurkeztu beharko da. Edozelan ere, zehaztuta ageri beharko da talde, kategoria eta espezialitate bakoitzean emandako denbora aldia.

5.3.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio nagusian, foru aldundietan edo toki administrazioetan eskainitako zerbitzuak baliokideak izango dira uztailaren 30eko 208/1990 Dekretua, Euskal Administrazio Publikoen kidego eta eskalen arteko baliokidetasuna zehazten duena, oinarri hartuta.

5.4.– Tituluak egiaztatzeko, titulua edo titulua jasotzeko eskubideak ordaindu izanaren agiria aurkeztu beharko da, jatorrizkoa edo kopia erkatua. Tituluak eskariak aurkezteko epea amaitu aurretik lortutakoak izan beharko dira, bestela ez dira aintzat hartuko.

5.5.– Hizkuntza ez-ofizialen ezagutza egiaztatzeko, titulua aurkeztu beharko da, jatorrizkoa edo kopia erkatua. Tituluak eskariak aurkezteko epea amaitu aurretik lortutakoak izan beharko dira. Ez da probarik egingo hizkuntza maila egiaztatzeko.

6.– Euskara.

6.1.– Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen dutenek «gai» kalifikazioa lortuko dute, baldin eta eskatutako lanpostuak hizkuntza-eskakizunerako derrigortasun-data gaindituta badu.

6.2.– Lanpostuaren hizkuntza-eskakizunak derrigortasun-data gainditurik ez daukanean, ondorengo puntuazioa lortuko da, eta ezin izango da lortu tarteko punturik:

Lanpostuak 3. HE badu, derrigortasun-data gainditu gabe:

- 1. HE egiaztatuta izateagatik: 1,45 puntu.
- 2. HE egiaztatuta izateagatik: 2,90 puntu.
- 3. HE edo goragokoa egiaztatuta izateagatik: 4,35 puntu.

Lanpostuak 4. HE badu, derrigortasun-data gainditu gabe:

- 1. HE egiaztatuta izateagatik: 1,45 puntu.
- 2. HE egiaztatuta izateagatik: 2,90 puntu.
- 3. HE egiaztatuta izateagatik: 4,35 puntu.
- 4. HE egiaztatuta izateagatik: 5,8 puntu.

7.– Azken kalifikazioa.

7.1.– Hautagaiak lortutako azken kalifikazioa hautaketa prozesu osoan lortutako puntuen batura izango da.

7.2.– Lehiaketa-oposizioko emaitza eta kalifikazio guztiak UPV/EHUren iragarki oholean argitaratuko dira, bai eta honako web gunean ere: www.ehu.eus

II. ERANSKINA

IKTKO GOI MAILAKO TEKNIKARIAK (SISTEMEN INFORMATIKA ESPEZIALITATEA)

Atal orokorra

- 1.– Espainiako 1978ko Konstituzioa.
- 2.– Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena.
- 3.– 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duena.
- 4.– 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
- 5.– 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 6.– 6/2001 Lege Organikoa, abenduaren 21ekoa, Unibertsitateena, eta 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzkoa.
- 7.– 17/2011 Dekretua, otsailaren 15ekoa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen estatutuak onartzen dituena.
- 8.– Ebazpena, 2010eko abenduaren 3koa, Laneko zuzendariarena, Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako lan kontratudun langileen III. Hitzarmenen Kolektiboa erregistratu, gordailatu eta argitaratzeko xedatzen duena (hitzarmen kodearen zenbakia: 86000272011993).
- 9.– 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea-rena, eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 10.– 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuei Aurre Hartzeari buruzkoa, eta UPV/EHU-ren Laneko Arriskuen Prebentzioa.
- 11.– 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa; 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa, eta Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II Plana (2014-2017).
- 12.– 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskeraren erabilpena arauzkotzekoa; 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena eta Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Euskararen II. Plan Gidaria (2013-2017).

Atal espezifikoa

- 13.– Networking-a, historia eta osagai fisikoak, datu-sareen topologia eta protokoloak.
- 14.– LAN, MAN, WAN, SAN eta VPN. Banda-zabalera.
- 15.– Networking-eredu eta baliabideak.
- 16.– Kable-proba. Kableatua LAN eta WAN sareetan.

- 17.– Ethernet teknologiak eta konmutazioa.
- 18.– TCP/IP protokolo multzoa eta IP helbideratzea.
- 19.– Bideratzearen eta azpisareen oinarriak.
- 20.– TCP/IP geruzak.
- 21.– Sareko gailuak. Wan-ak eta bideratzaileak. Bideratzailearen konfigurazioa.
- 22.– Cisco IOS software-administrazioa.
- 23.– Bideratzea, bideratze-protokoloak, TCP/IP multzoaren kontrol- eta errore-mezuak.
- 24.– Bideratzailearen hutsegiteen oinarrizko diagnostikoa. ACL.
- 25.– Sistema eragileak, deskribapena eta funtzionamendua. Sistema eragileen integrazioa.
- 26.– Windows 2008 R2 instalatzea, konfiguratzea eta martxan jartzea. Windows 2008 R2ren oinarrizko administrazioa. Sare-administrazioa Windows 2008 R2n.
- 27.– GNU/Linux sistemen oinarrizko administrazioa. Sare-administrazioa GNU/Linuxen.
- 28.– Direktorio aktiboa Windows 2008 R2n.
- 29.– GNU/Linux makinak instalatzea, konfiguratzea eta martxan jartzea.
- 30.– Programazioa SHELLen.
- 31.– DHCP, DNS, HTTP eta FTP.
- 32.– Urruneko terminala.
- 33.– Posta elektronikoaren, audioaren, bat-bateko mezularitzaren, bideoaren eta VOIParen zerbitzariak.
- 34.– Inprimatze- eta fitxategi-zerbitzariak Windows 2008 R2n. Inprimatze-, fitxategi- eta LDAP-zerbitzariak GNU/Linuxen.
- 35.– Mysql.
- 36.– Proiektu-kudeaketa.
- 37.– Urruneko atzipeneko zerbitzuak.
- 38.– Web-zerbitzarien kudeaketa.
- 39.– Posta elektronikoaren zerbitzuen kudeaketa.
- 40.– BackUp-kudeaketa.
- 41.– Haririk gabeko sareak.
- 42.– Apache zerbitzaria instalatzea eta konfiguratzea.
- 43.– Apache moduluak.
- 44.– Webgune bateko bisitarien autentifikazioa eta baimena.
- 45.– PHP Apache zerbitzarietan.

46.– Web-segurtasuna. SSL.

47.– Datu-esteken kontrola.

48.– Datu-kodeketa.

49.– Multiplexazioa.

50.– Pakete-kommutazioa.

III. ERANSKINA

IKTKO GOI MAILAKO TEKNIKARIAK (APLIKAZIOEN INFORMATIKA ESPEZIALITATEA)

Atal orokorra

- 1.– Espainiako 1978ko Konstituzioa.
- 2.– Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena.
- 3.– 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duena.
- 4.– 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
- 5.– 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 6.– 6/2001 Lege Organikoa, abenduaren 21ekoa, Unibertsitateena, eta 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzkoa.
- 7.– 17/2011 Dekretua, otsailaren 15ekoa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen estatutuak onartzen dituena.
- 8.– Ebazpena, 2010eko abenduaren 3koa, Laneko zuzendariarena, Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako lan kontratudun langileen III. Hitzarmenen Kolektiboa erregistratu, gordailatu eta argitaratzeko xedatzen duena (hitzarmen kodearen zenbakia: 86000272011993).
- 9.– 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea-rena, eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 10.– 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuei Aurre Hartzeari buruzkoa, eta UPV/EHU-ren Laneko Arriskuen Prebentzioa.
- 11.– 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa; 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa, eta Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II Plana (2014-2017).
- 12.– 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskeraren erabilpena arauzkotzekoa; 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena eta Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Euskararen II. Plan Gidaria (2013-2017).

Atal espezifikoa

- 13.– Networking-a, historia eta osagai fisikoak, datu-sareen topologia eta protokoloak.
- 14.– LAN, MAN, WAN, SAN eta VPN. Banda-zabalera.
- 15.– Networking-eredu eta baliabideak.
- 16.– Kable-proba. Kableatua LAN eta WAN sareetan.

- 17.– Ethernet teknologiak eta kommutazioa.
- 18.– TCP/IP protokolo multzoa eta IP helbideratzea.
- 19.– Bideratzearen eta azpisareen oinarriak.
- 20.– TCP/IP geruzak.
- 21.– Sareko gailuak. Wan-ak eta bideratzaileak. Bideratzailearen konfigurazioa.
- 22.– Cisco IOS software-administrazioa.
- 23.– Bideratzea, bideratze-protokoloak, TCP/IP multzoaren kontrol- eta errore-mezuak.
- 24.– Bideratzailearen hutsegiteen oinarrizko diagnostikoa. ACL.
- 25.– Sistema eragileak, deskribapena eta funtzionamendua. Sistema eragileen integrazioa.
- 26.– Windows 2008 R2 instalatzea, konfiguratzea eta martxan jartzea.
- 27.– Windows 2008 R2ren sistemen oinarrizko administrazioa. Sare-administrazioa Windows 2008 R2n.
- 28.– GNU/Linux sistemen oinarrizko administrazioa. Sare-administrazioa GNU/Linuxen.
- 29.– Inprimatze- eta fitxategi-zerbitzariak eta direktorio aktiboaren zerbitzaria Windows 2008 R2n.
- 30.– GNU/Linux makinak instalatzea, konfiguratzea eta martxan jartzea. Programazioa SHELLen.
- 31.– Inprimatze-, fitxategi- eta LDAP-zerbitzariak GNU/Linuxen.
- 32.– DHCP, DNS, HTTP eta FTP. Urruneko terminala.
- 33.– Posta elektronikoen, audioaren, bat-bateko mezularitzaren, bideoaren eta VOIParen zerbitzariak.
- 34.– Informazioa metatzeko sistemak, datu-baseak.
- 35.– Datu-base erlazionalak, analisisa eta entitate/erlazio diagramak. Normalizazioa.
- 36.– Datu- eta taula-eredua.
- 37.– SQL-DDL, definizioa eta taula eta erlazioen kudeaketa.
- 38.– Kontsultak MySQLrekin. INSERT, UPDATE, DELETE ekintzak.
- 39.– SQL-DCL, segurtasun-baimenak Oraclen.
- 40.– Datu-atzipeneko arkitekturak. Datu-base banatuak.
- 41.– Proiektu-kudeaketa.
- 42.– Apache zerbitzaria instalatzea eta konfiguratzea.
- 43.– GNU/Linux sistemaren kernela.
- 44.– Zerbitzu-administrazioa GNU/Linuxen.

45.– Segurtasun-administrazioa GNU/Linuxen.

46.– Clustering-a.

47.– Datu-esteken kontrola.

48.– Datu-kodeketa.

49.– Multiplexazioa.

50.– Pakete-kommutazioa.

IV. ERANSKINA

ERAIKUNTZA, OBRA ZIBIL ETA MANTENTZE LANETAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIAK
(ARKITEKTURA ETA OBRAK ESPEZIALITATEA)

Atal orokorra

- 1.– Espainiako 1978ko Konstituzioa.
- 2.– Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena.
- 3.– 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duena.
- 4.– 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
- 5.– 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 6.– 6/2001 Lege Organikoa, abenduaren 21ekoa, Unibertsitateena, eta 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzkoa.
- 7.– 17/2011 Dekretua, otsailaren 15ekoa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen estatutuak onartzen dituena.
- 8.– Ebazpena, 2010eko abenduaren 3koa, Laneko zuzendariarena, Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako lan kontratudun langileen III. Hitzarmenen Kolektiboa erregistratu, gordailatu eta argitaratzeko xedatzen duena (hitzarmen kodearen zenbakia: 86000272011993).
- 9.– 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea-rena, eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 10.– 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuei Aurre Hartzeari buruzkoa, eta UPV/EHU-ren Laneko Arriskuen Prebentzioa.
- 11.– 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa; 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa, eta Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II Plana (2014-2017).
- 12.– 10/1982 Oinarrizko LEGEA, azaroaren 24koa, Euskeraren erabilpena arauzkotzekoa; 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena eta Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Euskararen II. Plan Gidaria (2013-2017).

Atal espezifikoa

- 13.– LOE. 38/1999 Legea, azaroaren 5ekoa, Eraikingintzaren Antolamenduari buruzkoa.
- 14.– Obra-kontratua. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.
- 15.– Proiektu arkitektonikoa. Proiektu arkitektonikoa: proiektu motak eta haien edukiak: 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruz-

koa. 314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, Eraikingintzako Kode Teknikoa onartzen duena. (EKT). 314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, Eraikingintzako Kode Teknikoa onartzen duena. I. eranskina. 1000/2010 Errege Dekretua, abuztuaren 5koa, Elkargoaren Nahitaezko Oniritziari buruzkoa.

16.– Obra-zuzendaritza. Obra-zuzendaritza: obra motak eta haien edukiak: 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa. 314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, Eraikingintzako Kode Teknikoa onartzen duena. (CTE). 314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, Eraikingintzako Kode Teknikoa onartzen duena. II. eranskina. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.

17.– Proiektu arkitektonikoaren aurrekontua Eusko Jaurlaritzaren eraikingintza- eta urbanizazio-salneurrien oinarria. 2015eko edizioa

18.Irismetarritasuna. 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, Irismetarritasuna Sustatzekoa 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irismetarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena.

19.– CTE-DB-SI. Segurtasuna suteetan. 314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, Eraikingintzako Kode Teknikoa onartzen duena.

20.– DB-SUA. Erabilera-segurtasuna eta irismetarritasuna. 314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, Eraikingintzako Kode Teknikoa onartzen duena. 173/2010 Errege Dekretua, otsailaren 19koa, Eraikingintzaren Kode Teknikoa (martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutakoa) aldatzen duena desgaitasunen bat duten pertsonen irismetarritasunari eta ez-diskriminazioari dagokionez.

21.– CTE-DB-HE. Energia aurreztea. 314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, Eraikingintzako Kode Teknikoa onartzen duena. FOM/588/2017 Agindua, ekainaren 15ekoa, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikingintzako Kode Teknikoko DB-HE «Energia aurreztea» Oinarrizko Dokumentua eta «DB-HS Osasungarritasuna» Oinarrizko Dokumentua aldatzen dituena. FOM/1635/2013 Agindua, irailaren 10ekoa, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikingintzako Kode Teknikoko DB-HE «Energia aurreztea» Oinarrizko Dokumentua eguneratzen duena.

22.– CTE-DB- HR. Zarataren aurkako babesak. 314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, Eraikingintzako Kode Teknikoa onartzen duena. 1317/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikingintzako Kode Teknikoko DB-HR «Zarataren aurkako babesak» onartzen duena.

23.– CTE-DB- HS. Osasungarritasuna. 314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, Eraikingintzako Kode Teknikoa onartzen duena. FOM/588/2017 Agindua, ekainaren 15ekoa, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikingintzako Kode Teknikoko DB-HE «Energia aurreztea» Oinarrizko Dokumentua eta «DB-HS Osasungarritasuna» Oinarrizko Dokumentua aldatzen dituena.

24.– Eraginkortasun energetikoa. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/91/EE direktiba, 2002ko abenduaren 16koa, Eraikinen Eraginkortasun Energetikoari buruzkoa. Eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/31/EB direktiba, 2010eko abenduaren 19koa, Eraikinen Eraginkortasun Energetikoari buruzkoa (Bat egitea). Eraikin berrien eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura. 47/2007 Errege Dekretua. Eta eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura. 235/2013 Errege Dekretua.

